



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ferran Albrich baritonoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak omenaldia egingo diote Antón García Abril konpositoreari Lied Arriagan zikloan

- Kontzertua urtarrilaren 27an izango da, asteartean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean
- Programa García Abril maisuaren ahots eta pianorako abestietan oinarrituko da, eta amaieran keinu bat egingo dio beste konpositore handi bati, Juan Crisóstomo de Arriagari, izan ere, urtarrilaren 27a, emanaldiaren eguna, egilearen jaiotzaren 220. urteurrenaren eguna baita.

Bilbo, 2026ko urtarrilaren 23a.- Datorren astean ekingo diogu berriz LIED ARRIAGAN zikloaren laugarren edizioari, zeinak formatu txikiko errezitalak eskainiko baititu, pianoarekin eta ahotsarekin, oro har, Arriaga Antzokiko foyerreko giro intimo eta atseginean. Hurrengo emanaldia urtarrilaren 27an izango da, asteartean, eta **Ferran Albrich** baritonoa eta **Rubén Fdez. Aguirre** pianista izango ditu protagonista, **Antón García Abril** konpositoreari omenaldia egingo dion errepertorioarekin.

Anton Garcia Abril hil zenetik bost urte igaro ondoren, sakonki eta edertasunez hitz egiten jarraitzen du haren musikak. Inor gutxik bezala jakin zuen emozioa eta hitza uztartzen, eta adierazpen-aberastasun handiko errepertorio lirikoa utzi digu. Lied Arriagan zikloko kontzertu honek haren ahots-ondarea omendu nahi du, ahots eta pianorako haren abestietan oinarritutako programarekin. Ferran Albrich baritonoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak interpretatuko dituzte —maisuaren gertuko kolaboratzailea eta haren musikaren ezinbesteko interpretatzailea izan zen azken hori—.

Gainera, kontzertuaren egunean, urtarrilaren 27an, beste urteurren berezi bat ere bada: duela 220 urte Juan Crisóstomo de Arriaga bilbotarra jaio zenekoarena. Haren izena daraman Arriaga Antzokitik omenaldi txiki bat egin nahi diogu egun horretan bertan, sorpresa berezi batekin: inoiz entzun ez den haren obra bat interpretatuko da, baritono baten ahotsean.

Hala, kontzertu honek musika-omenaldi hunkigarria eskaini nahi die bi sortzaileoi, sentsibilitate artistiko eta hunkitzeko gaitasun handia baitute biek ere. Hitzordua paregabea izango da, inondik ere, musikaren ahalmena eta kantuaren emozioa ospatuko dituen, Arriaga Antzokiko Foyerreko giro intimoan.

Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloaren laugarren edizioa antolatu du denboraldi honetan eta, aurten ere, Rubén Fdez. Aguirre maisua izango da zikloaren koordinatzailea. Ilker Arcayürek eta Malcolm Martineauk inauguratu zuten iazko

azaroan aurtengo edizioa, eta orain, 2026an, denboraldi honetarako aurreikusitako gainerako bost kontzertuak egingo dira: **Ferrán Albrich eta Rubén Fdez. Aguirre** (urtarrilaren 27an); **Hera Hyesang Park eta Rubén Fdez. Aguirre** (martxoaren 24an); **Juan Laborería eta Carmen Santamaría** bere *Norteñas* errezitalarekin (apirilaren 14an); **Iris Candelaria eta Rubén Fdez. Aguirre** (maiatzaren 19an), eta **Marisa Martins eta Miquel Ortega** (ekainaren 9an).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus